

**2017KO MARTXOAREN 30EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamarra.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamazazpi

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak:

KOLDO AGIRRE MUJIKI
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2017ko otsailaren 23ko akta onartzeko proposamena.

2017ko otsailaren 23ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- PLANTILLA MUSIKA ESKOLA. Zuzendari lanpostuaren balorazioa.

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordearen proposamena, hots:

“Postua: Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoko Zuzendaria.

Aurreko 2017-03-09an Balorazio Mahaia bildu zen eta ondorengo akordioa hartu zen:

MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARITZA POSTUAREN BALORAZIOA.- Musika Eskolako Zuzendaritza postuaren ordainsarien inguruan, bere garaian egin zen balorazioan, Ordainsari Orokor bezala irakasle baten pareko balioa ezarri zen eta Zuzendaritza lanengatik osagarri bat.

Momentu honetan, Zentroaren Zuzendariak dedikazio osagarri bat badu eta ulertzen denez, bi osagarriak batera izatea zaila dela, Zuzendaritzakoa eta Dedikazio Osagarria; Musika Eskolako Zuzendari postuari Ordainsari Orokorreko maila bezala balorazio berri bat ezarriko zaio, irakasle postuaren balioak eta orain arte Zuzendaritza lanengatik ordaintzen zitzaion balioak batuz lortuko dena, hau da:

- *Irakaslearen ordainsari maila: 35.831,46 €/urtean.*
- *Zuzendaritza osagarria: 7.178,22 €/urtean*
- *Zuzendari postuaren balioa: 43.009,68 €/urtean.”*

Horrek eragiten du, otsailaren 23an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren erabakia aldatzea, musika eskolako zuzendariari dagokion dedikazio osagarriaren diru kopuruarekiko, izan ere, 8.957,87 €tik 10.752,42 € izatera pasatzen da, pasadan Plenoan onartutako %25eko “erabateko erabilgarritasuneko lanaldi luzatua”, kalkulatzeko oinarria handiagoa delako.

Beraz, lanpostuaren zerrendan musika eskolako zuzendariaren osagarri espezifikoa 10.752,42 € aurreikusitako behar dira eta hori da, hain zuzen ere, argitaratu behar dena.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamenarekiko adostasuna azaldu da.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- MUGAKETA. Beasain eta Ordizia udal barrutien arteko mugaketa zortzigarren mugarriari dagokionean.

Ezagutzera eman da, Lurralde batzordeko proposamena:

“Gaia: Beasain eta Ordizia udal barrutien arteko mugaketa zortzigarren mugarriari dagokionean.

AURREKARIAK

I.- 1942. urtean, Beasaingo eta Ordiziako udalerrien arteko, mugaketa egin zen eta zortzigarren mugarriari dagokionean, bi udalen ordezkariak (horretarako izendadutakoak) ez ziren adostasun batera iritsi.

II.- Lehengo urtearen bukaeran, Ordiziako Udalak 12-UPABI Hirigintza Interbentzio Eremuaren 12.1 Exekuzio Unitatearen Birpartzelazio Proiektuaren hasierako onepenen berri eman zion Beasaingo Udalari.

Aipatutako errepartzelazio eremua aztertu ondoren, egiaztatu zen exekuzio unitate horren mugak, Beasaingo udal planeamenduko AASSren CAF, 6. Arearen aldamenean dagoena, bat ez datorrela azken hauetan azaltzen den Beasaingo udalerraren mugarekin

III.- Lehen ere bi udalerrien arteko desadostasunak egon dira, Pabiloiak eraikitze lizentziak ematearen ondorioz.

IV.- Sortutako arazoa Konpondu ahal izateko, bidezkoztat jotzen da Beasain eta Ordizia udalerrien arteko mugaketa egitea aipatutako puntuan, ordenazio orokorreko planeamenduan islatzeko, dokumentu hau idazteko behar diren pausoak ematen hasi baitira.

OINARRI JURIDIKOAK

Gipuzkoako Udal Mugapeak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Araua. 17tik 23ra bitarteko artikulak.

Horren ondorioz, “Lurralde” batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. *Beasain eta Ordizia udalerrien arteko mugarriak errekonozitzeko espedienteari hasiera ematea, falta direnak jarriz, kasu bada. Hori guztia, 1942an egindako mugaketaren arabera.*

Bigarren. *Horretarako ondorengo batzordea eratzea, jarraian aipatzen diren kideekin,:*

- Alkatea: Aitor Aldasoro Iturbe

- Bi zinegotzi: Leire Artola Ugalde, Xabier Matarranz Rico

- *Udalaren Idazkaria: Itziar Arostegi Apaolaza*
- *Teknikoa: Agustín Pérez de Nanclares (aparejadorea).*

Hirugarren. *Erabaki hau Ordiziako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, nahiz afektatutako lursailen jabeei jakinaraztea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamenarekiko adostasuna azaldu da.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- ORDEZKARIAK IZENDATZEA. Goierriko Herrien Ekintza Fundazioan, Ikaslan eta Goierri Goi maila Eskolan.
Alkatearen ondorengo proposamenaren berri eman da:

“Gaia: Udalak parte hartzen duen entitateetan ordezkariak izendatzea.

AURREKARIAK

Udalbatza Osoak, 2015- 09-24an egindako bileran, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa eta Ikaslanen, Santiago Urdampilleta Dos Santos eta Angel Redondo ziengotzieren alde izendapena egitea erabaki zuen titular eta ordezeko gisa, hurrenez hurren.

Agenda arrazoiagatik, ordezkari izendapen jarduteko duten arazoa dela medio eta alde aurretik beraiekin kontsultatuta, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio:

Lehenik. *Aipatutako izendapenei buruz, 2015-09-24ko udalbazako erabakia bertan behera uztea.*

Bigarren. *GOIERRIKO HERRIEN EKINTZAFUNDAZIOA, IKASLAN eta GOIERRIKO GOI MAILAKO ESKOLAN, Beasaingo Udalaren ordezkari, titular eta ordezeko gisa ondorengoak izendatzea:*

*Titularra /titular: **Aitor Aldasoro Iturbe**
Ordezkoa / suplente: **Leire Artola Ugalde***

Hirugarren. *Erabaki honen berri aipatutako entitateei ematea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamenarekiko adostasuna azaldu da.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5.- MOZIOA, Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira.

Ondorengo mozioaren berri eman da:

“Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan ziren; gure ustez prozesu horren izapideak Iruñean egin beharko lirateke, izan ere epaitzeko eskumena tokian-tokiko epaitegiei baitagokie eta ez Entzutegi Nazionalari. Hori hala izan behar lukeela adierazi dute zenbait erakundek, nabarmenki Nafarroako Legebiltzarrak, baita jurista eta Unibertsitate-irakasle ugari ere. Horren karira, Beasaingo Udalak bere elkartasuna adierazten dio Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta eskaera hau luzatu eta sinatzen duenak ordezkatzeko duen gizarte zibilak luzatu duen deiarri jarraiki.

*Javier Ollo Martínez, Altsasuko Alkatea
Sonia Ontoria - Abokatua
Iñaki Lasagabaster –UPV/EHUko katedraduna
Altsasurekin elkartasuna plataformako kidea”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “El respeto que se merecen los órganos de la justicia no impide que se pueda discrepar con ellas. Para eso están los recursos ante los tribunales. Ante unos hechos como los sucedidos en Alsasua, los socialistas reclamamos primero, firmeza a la hora de repudiar una agresión intolerable e injustificada, exigir el castigo que merecen los matones y rechazar la mentalidad totalitaria e intolerante que está detrás de estos hechos. En este sentido, en esta moción no encontramos ninguna muestra de solidaridad con las personas agredidas ni una mínima crítica a los agresores que con su comportamiento han dado lugar al procedimiento judicial al que se hace referencia. Dicho esto también, los socialistas creemos que hay que reclamar medida a la hora de enjuiciar estos hechos, porque una sobreactuación penal contra los agresores puede hacer que éstos terminen apareciendo como víctimas y desde luego, no lo son en absoluto. Esperamos que se imponga el sentido común y que no embarre la situación con una acusación desmesurada de terrorismo. La gravedad que tiene esta paliza y sobre todo la motivación de la misma: agresión, atentado contra la autoridad, delito de odio..., será la justicia quien determine el tipo, pero en cualquier caso, nosotros no somos jueces y nos guste más o nos guste menos, hemos demostrado respeto a las decisiones judiciales, que como decimos, pueden ser recurridas en caso de discrepancia por quien son parte de ese procedimiento judicial. Por último, no podemos dejar de mencionar que las actuaciones que han dado lugar a procedimiento judicial al que se refiere la moción, tiene origen en una mentalidad totalitaria propia de “matones”. Detrás de la paliza están los rescoldos de tantas décadas de odio, totalitarismo e intolerancia que todavía subsisten en la mentalidad de un sector de nuestra sociedad. ¡Ha desaparecido la violencia!. Bueno, yo tengo mis dudas. Quedan los resortes que alimentaron los movimientos, todavía activos, como “alde hemendik” o “ospa mugimendu”. Es una tarea que está pendiente y que quienes apoyaron y justificaron el terrorismo, deberían empeñarse con más claridad y decisión. Aitor, decirte que la presentación de esta moción por parte de un Alcalde, que representa a un partido tan serio y de semejante nivel institucional como es el tuyo, nos ha dejado cuando menos perplejos. No entendemos. Desde luego, queremos dejar bien claro aquí que el PSOE en Beasain con quien se solidariza se solidariza es con las víctimas de Alsasua.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Lehenik eta behin, tonoa jaitsi, “Matones y no matones” aipatu duzu eta justiziak erabakiko duela esan duzu, baina zuk sententzia bota duzu. Ez dakit zertara datorren taberna bateko istilua, horrela aprobetxatu nahi izatea. Oraintxe bertan zalantza dut, PSOEko bozeramailea zaren edo UPNkoa, goardia zibila edo ez dakit...Harrituta geratu naiz zure interbentzioarekin, kontuan izanda gainera, Altsasuko gertaerari buruzko lehenengo mozioa babestu zenuela. Agresibidade hori eta tonoa jaisteko eskatuko nizuke. Guk mozioa babesten dugu”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Si te ha parecido que mi tono ha sido elevado, te pido disculpas. No era mi intención parecer extremadamente agresivo. Esta moción la firma un tal Javier Ollo Martínez, que es un Alcalde, Sonia Ontoria, letrada, Iñaki Lasagabaster, catedrático y miembros de solidaridad con esta gentuza. Para nada me parece que sea el pueblo de Alsasua quien apoya estos hechos. Nosotros si hemos sido extremadamente claros en cuanto a la violencia se refiere. Siempre nos hemos posicionado en la misma manera y me reitero en mi discurso.”

Zezenia Herrador andreak (Beasaingo EH BILDU): “Uste dut Aitorrek esan duen bezala, tonoa da gauza bat eta erabiltzen duzun hizkuntza ere bai, ze “gentuza” hitzarekin zuri gogoak ematen dizun bezala ari zara kalifikatzen. Biolentzia ere mota askotakoak daude eta zuek onartzen dituzue batzuk eta beste batzuk, akaso, babestu. Beraz, mesedez, denei errespetu minimo bat. Zu hori eskatzen ari bazara, lehenik besteekiko izan.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estoy completamente de acuerdo contigo Zezenia, pero aquí estamos hablando de unos hechos en concreto, de una agresión que ha habido en Alsasua a dos personas y a sus mujeres. Esta claro que mi profesión no es la de goardia civil, a la cual tengo un profundo respeto, igual que a la Ertzaintza, policía nacional o cualquier otro cuerpo del Estado.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Iruditzen zait eta ez dakit intentzioarekin edo intentzioarik gabe, seriotasuna aipatu da eta alderdien seriotasuna norberaren seriotasunarekin hasi behar du. Seriotasuna da zorrotz aztertzea mozioak zer esaten duen. Zerbait epaitzen hasi gara eta mozioak ez du horretaz ezer esaten, Ahaztu zaizu esatea Nafarroako Legebiltzarrak ere babesten duela hau. Hemen ez gara epaitzen ari gazte batzuek egin duenarena. Esaten ari garena da, epaiketa hori non eman behar den. Lege-babesa dago eta hemen esaten ari garena da babes lege horrekin, epaiketa hori Iruñan gauzatzea eta ez Audientzia Nacionalean. Hortik haratago egin nahi diren irakurketak, iruditzen zait seriotasun falta dela. Guk ez dugu epaitzen egin dena ondo dagoen ala ez. Bakarrik epaiketa non gauzatu behar den.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo creo Aitor que te estás confundiendo. No es una actitud, es un posicionamiento político en relación a una moción que se presenta. En cualquier caso no quiero extenderme más con este asunto. Creo que ha quedado perfectamente clara la posición del PSOE en Beasain, y por eso votaremos en contra de la moción.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Vuelvo a insistir, nos es un problema de actitud, es un problema de rigor. No se está enjuiciando a nadie, sólo que se juzgue en un sitio o en otro. La base de la democracia también es la presunción de inocencia. No enjuiciemos a la gente antes del juicio. Lo que pide la moción está claro y nada tiene que ver con lo que aquí se ha hablado.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH BILDU)
Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

6- KONTUHARTZAILEAK EGINDAKO ERAGOZPENENAREN EBAZPENEA.

Ezagutzera eman da, kontuhartzaileak egindako erreparo-txostena, hau da:

“GAIA.- Baltistan Fundazioari Kooperazio proiekturako emandako dirulaguntzaren itzulketarako espedientea.

AURREKARIAK

1.- 2014ko urtarrilaren 23an egindako bileran, Udalbatzak Garatze Bidean dauden Herrialdeekin Lankidetzaren proiektuak diruz laguntzeko oinarriak onartu zituen.

2.- 2014ko urriaren 6ko data duen Alkatearen ebazpenaren bidez, Baltistan Fundazioari 13.897,50 euroko dirulaguntza onartu zitzaion “Sharbi Nima: Malalah proiektuaren mantentzea eta garapena haur Baltien hezkuntzaren parekidetasuna eta kalitatea bermatzeko” proiektua gauzatzeko.

Aipatutako laguntza, Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzaren proiektuentzat dirulaguntzak emateko 2014ko urtarrilaren 31n argitaratutako oinarrietako 11 eta 12. artikuluetan adierazitakoaren arabera, proiektuaren justifikazioa aurkezteko baldintzarekin eman zen.

3.- 2014ko abenduaren 1ean Udalak, Baltistan Fundazioari, onartutako dirulaguntzaren %70a ordaindu zitzaion, hau da, 9.728,25 euro.

4.- Proiektuaren justifikazio data pasatu ondoren (2015eko abenduak 31), Baltistan Fundazioak ez du proiektuaren justifikaziorik aurkezten eta hori dela eta laguntza desegokiak itzultzeko prozedurari hasiera eman zitzaion (2016ko martxoaren 3ko Alkatearen ebazpena).

5.- Baltistan Fundazioak alegazioak aurkezteko epearen barruan, proiektuaren justifikazioa aurkezten du eta bertan hainbat gabezi topatzen dira

6.- Gizarte Langile-Gizarte Dinamizatzaileak 2016ko maiatzaren 23an, aipatutako Fundazioari emandako dirulaguntzaren itzulketaren beharra azalduz txostena egiten

du, emandako dirulaguntzaren egiaztapenerako oinarriek eskatutako baldintza ez betetzeagatik, hain zuzen ere, transferentziaren egiaztagiria ez du aipatzen "Beasaingo Udala" ordainagiriaren kontzeptuan, ondorengoaz gain:

- 10. faktura falta da.
- 33. fakturatik bakarrik 26 € onartu daitezke eta ez egotzen zaizkion 186,07 €.

7.- 2016ko uztailaren 7an Fundazioari jakinarazi zitzaion 2016ko maiatzaren 23ko B16/00612 Alkatearen ebazpena, jasotako dirukopurua (9.728,25 €) gehi berandutza interesak (527,63 €) itzultzeko errekerituz, eta adieraziz, hilabeteko epean Udalaren aurrean birjarpen helegitea jarri zezakela.

- 8.- 2016ko uztailaren 14an Baltistan Fundazioak eskatutako dirukopurua ingresatu zuen Udaleko diruzaintzan (10.255,88 €).

9.- 2017ko urtarrilaren 13an Baltistan Fundazioak eskaria aurkezten du, non 2014ko urriaren 13ko hitzarmenean xedatutako dirulaguntza guztia (zuritu gabeko 160,07 €tan gutxituta) gehi berandutza interesak ordaintzea eskatzen duen, hau da, 14.265,06 € guztira.

10.- Alkate jaunak adierazi duenez, Fundazioaren ordezkariekin elkartu ondoren, Bozeramaileen batzordeak eskaria onartzea erabaki du, eta beraz, 14.265,06 € ordaintzea agintzen du.

Hau guztia kontutan izanik, Kontuhartzaileak txosten hau igortzen du, ondorengo adieraziz:

1.- Txosten hau sinatzen duenak bat egiten duela Gizarte Langile-Gizarte Dinamizatzaileak 2016ko maiatzaren 23an egindakoarekin.

2.- Eskatutako kopurua ordaintzea erabakiko balitz, aurtengo aurrekontuan beharrezko aurrekontu kreditua hornituko lukeen kreditu aldaketa egin beharko litzatekeela jakinarazten du.

3.- Kontutan izanik 21/2003 Foru Arauaren 70.5 artikulua xedatutakoa, **UDALBATZA**ri dagokio eztabaida ebaztea, hain zuzen ere, onuradunaren betebeharrak eta horiek betetzearen edo ez betetzearen ondorioak, Udaltzako onartutako oinarrietan jasotako alderdiak dira.

Ondorioz:

1.- Espedientearen izapidetzea eten beharko da, Udaltzako erreparoa ebazten duen arte.

2.- Kontuen Euskal Epaitegira bidali beharko da erabakia, eragozpen txostenaren aurkakoa bada, Hazienda Lokalak arautzen dituen Legearen Textu Bateratuaren 218.3 artikulua xedatzen duena kontutan izanik"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamenarekiko adostasuna azaldu da.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

7.- ALKATEAREN EBAZPENAK: 2017ko otsailaren 20tik 2017ko martxoaren 25erarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2017ko otsailaren 20tik 2017ko martxoaren 25erarte emandako Ebazpenak.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.